

BANDOA

Herritar guztiei jakinarazten dizuet 2009ko azaroaren 5ean egin zen Udalbatzarrean hartutako erabakia, “**ASTEASUKO ERREGE KABALGATAN PARTE HARTZERI UZTEA**” bertan behera gelditu dela, eta aurtengo errege kabalgatan zuen haurrak opariak jasotzeko aukera izango dutela.

Aste honetan zenbait gurasoekin izan den bileraren ostean, beste ezer herrian antolatzeko astirik ez zegoela ikusita, Larraulgo Udalak aurtengo errege kabalgatan parte hartzea erabaki du.

Gure lehenengo erabakiarekin, zenbait gurasoen desadostasuna ikusirik, datorren urteko gabonetan sortu edo mantendu behar diren ekintzei buruz hausnarketa bat egin behar dela ikusten dugu, eta gainera kultur batzordetik bideratuko beharko dela.

Larraulen, 2009 urteko abenduaren 4an

ALKATEA
Xabier Mujika Pagola